Bestelako Xedapenak

**OGASUN ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

1337

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 17koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian jardundako 288/08 zenbakidun prozedura laburrean alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2009ko otsailaren 16ko Ebazpena eman duela non xedatu den Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiari bidal dakiola honako prozedura honi buruzko espediente administratiboa:

288/08 zenbakidun prozedura laburtua: María Agoues Mendizábal andereak jarri duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko martxoaren 11ko Aginduaren aurka doa, hain zuzen ere, agindu horren bidez esleitzen baitira 2007ko urriaren 31ko Aginduaren bitartez deitutako lanpostuak.

Prozedura honek eragina izan dezake lehen esandako lanpostuak betetzeko lehiaketaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedienteetan interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiaren aurrean lehenago esandako prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 17a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

1337

RESOLUCIÓN de 17 de febrero de 2009, del Director de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el Procedimiento Abreviado n.º 288/08 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Donostia-San Sebastián a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace público que el Director de Función Pública, con fecha de 16 de febrero de 2009 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Donostia-San Sebastián el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento abreviado n.º 288/08: recurso contencioso-administrativo interpuesto por María Agoues Mendizabal contra la Orden de 11 de marzo de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se adjudican los puestos de trabajo convocados mediante Orden de 31 de octubre de 2007.

Este procedimiento puede afectar a la resolución del concurso para la provisión de puestos de trabajo del concurso anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el art. 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en los referidos expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Donostia-San Sebastián y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2009.

El Director de Función Pública,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.